

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

OGASUN SAILA

Ondare Kudeaketa

Zuhatzu Vitoria-Gasteizko hainbat landa-finka —39.730, katastro-erreferentzia: 10-251 (69-57); eta 40.044, katastro-erreferentzia: 10-258 (69-68)— Vitoria-Gasteizko Udalaren izenean erregistro-izapideak berrabiaraztea

Hauxe erabaki zuen Gobernu Batzarrak 2025eko abuztuaren 1ean egindako bilkuran:

Aurrekariak

2004ko maiatzaren 17an, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak 392/04 epaia eman zuen 2341/02 errekurtsioan. Epaia horren bidez errekurtsogileen uzia baietsi zen, hau da, Jesús eta Sergio López de Foronda Ruiz de Angulo anaiek 69-25, 69-57, 69-60 eta 69-68 finkei dagokien aurkeztutako itzulketa-eskaera; finka horietako lehenak Jundizko poligonoa zedarritzeko proiektuaren eraginpean daude, eta azken finka, Jundizko sarbideei buruzko dosierraren eraginpean. Epaia errekurtsogileen uzia baiesten du, isiltasun positiboa aplikatzen dela ulertzen baitu.

Vitoria-Gasteizko Udalak hainbat jarduketa eta izapide egin ditu, bai ebazpen judizial hori betetzeko, bai eskatzaileen uziak betetzeko zehazki, Ogasun Sailak finkak erregistroan inskribatzeko jarduketak egin ditu, ondoren posible izan dadin Hirigintza Sailak itzulketa —ebazpen judizialak isiltasunez baietsia— gauzatzeko izapideak egiaztatzea.

Zehazki, amaitutzat jo dira 69-25 eta 69-60 finkei dagozkien jarduketa guztiak. Lehenengo finkari dagokionez, gaur egun ekoizpen-lurzati baten edo batzuen barruan dago, hirugarrenei esleituta, eta, beraz, ezin da lurzati horren gainean eskatutako izapidetzea egin. Bigarren finkari dagokionez (69-60), Vitoria-Gasteizko Udalaren aldeko erregistro-inskripzioarako izapide guztiak egin ondoren, orduko Lurraldearen Sailak eskatzaileen aldeko itzulketa izapidetu zuen 2021eko uztailen.

Gaur egun, Vitoria-Gasteizko Udalaren izenean inskribatu gabe daude 69-57 eta 69-68 finkak (39.730 eta 40.044 erregistro-finkak, hurrenez hurren).

Denboran zehar, Jabetza Erregistro eskudunean hainbat titularren segida egon da. Horiek gaia aztertu eta baloratu dute, eta orain honako finka hauen inguruko beharrezko izapideak berrabiarazteko eskatu dute:

— 39.730 (Tokiko Gobernu Batzarrak amaitutzat jo zuen dagokion dosierra, 2020ko urriaren 30ean).

— 40.044.

Une oro, bi alderdiek —udalak eta erregistroak— administrazio honen izenean dauden finkak erregistroan inskribatzeko helburua erdietsi nahi izan dute, ebazpen judiziala betetzeko eta eskatzaileen uziak bete ahal izateko. Hala ere, izapideak eten egin ziren, eta Gobernu Batzordeak berak dossierretako baten amaiera deklaratu zuen.

Arestian azaldutako inguruabarretan oinarrituta, beharrezkoa da prozedura formalki berrabiaraztea; Tokiko Gobernu Batzarraren eskumena da dagokion erabakia hartzea, finkak inskribatzeko jarduketa administratiboekin jarraitu ahal izateko.

Horrenbestez, eta eskumena Tokiko Gobernu Batzarrak duenez azaroaren 8ko Sektore Publiko Kontratuen 9/2017 Legearen bigarren xedapen gehigarrian (Toki-entitateen kontratazioaren arloko eskumenak) xedatutakoaren arabera, erabaki-proposamen hau egiten dio Ogasun Saileko zinegotzi ordezkariak:

Lehen: epaiaren xede diren 40.044 eta 39.730 finkak erregistroan Vitoria-Gasteizko Udalaren izenean inskribatzeko behar diren administrazio-izapideak berrabiaraztea.

Bigarrena: udaleko zerbitzu juridikoei eta teknikoei ahalmena ematea erabaki hau benetan gauzatzeko behar diren jarduketa guztiak egin ditzaten.

Hirugarrena: erabaki honen berri ematea interesdunei eta jabetza erregistro eskudunari, dagozkion ondorioetarako.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko irailaren 16an

Ogasun Saileko zinegotzi ordezkaria
JON ARMENTIA FRUCTUOSO